



Bizkaiko emakume bertsolariak

Bertsolaritza gizonen kontua dela esaten da. Baina uste hori ustel egingo duenik badago Bizkaialdean. Orainarte gizonen mundua izan den horretan, ahal duten neurrian, lekutxoren bat egiten saiatzen dira. Emakumezkoak dira eta bertsotan gizonen besteko izan daitezkeela demostratzea dute helburu.

*Testua eta argazkiak:
Izaskun ELLAKURIAGA*

Astelehen arratsaldea zen Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean, batu ginenen. Hala ere, astelehena izanagatik ez genuen asteburuko erresakaririk. Humoretsu eta hitzegiteko gogo handiz elkartu ginen. Aspaldi zen elkar ikusten ez genuela eta bazegoen zer kontaturik. Baina elkartzearen arrazoiak bertsolaritzaz hitzegitea izanik, lanari ekin genion. Emakumezkoak izanik, bertsolaritzan emakumeek dituzten arazoez gain, orokorrean bertsolaritzari buruz ere hitzein genuen bi ordu luzez.

Bizkaiko emakume bertsolarietatik bost batu ziren Leioan beren ideia, zalantza, esperantzak, ... adierazteko asmoz: **Kristina Mardaras, Ainhoa Munitxa, Mirari Azula, Xiomara Gezuraga** eta **Iratxe Ibarra**. Bostak dira bertso-eskoletan hasitako bertsolariak eta bostak izan dute Jon Lopategi maixutzat. Hala ere, ikasketak, lana eta beste zenbait gora behera bitarteko batzu bertsolaritza bigarren maila batetan utzi behar izan dute. Hori da Kristina Mardaras, Ainhoa Munitxa eta Xiomara Gezuragaren kasua.

Kristina Mardaras lurretako Maiztegi Herri Eskolako zuzendaritza eta irakasle lanek denbora asko dedikatzea exijitzen diote. Jende aurrean bertsoak kantatzeari utzi badio ere, ordea, astero lurretako zenbait gazterekin bertsotan egiteko eta bere laguntza ema-


teko elkartzen da. Alaba O.H.O.-ko 6.mailan zebilenean hasi zen bertso munduan eta zenbait urtetan bera izan zen plazetan bertsotan iharduten zen emakume bakarra.

Ainhoa Munitxa eta **Xiomara Gezuraga** 20 eta 19 urte dituzte. Biak dira unibertsitateko ikasleak eta Matematika eta Fisikako ikasketak burutzen dihardute. Momentu honetan ikasketek kentzen duten denboraren erruz, bertsolaritzari lehen baino atentzio gutxiago eskeintzen diote. Hala ere, Ainhoak Durangoko bertso-eskolan eta Xiomarak Gernika-koan ahaleginak egiten dituzte sua amatatu ez dadin. Orain 10 urte hasi ziren bertsolaritzan, 6.mailan zeudenean, Lopategiren irakatsien itzalean. Eta Bizkaiko gazteen artean hain ospetsu bihurtu den kanpantxukadetako lehen generaziokoak dira.

Mirari Azula eta **Iratxe Ibarra** ere Kanpantxukadetako lehen jeneraziokoak dira. Eta Ainhoa eta Xiomarak bezala Lopategirekin hasi ziren bertsotan 6.mailan zeudenean. 19 eta 18 urteko bi neska hauek izango dira aurtengo Bizkaia-Arabako Bertsolari Txapelketara aurkeztuko diren emakumezko bakarrak. Eta ahalegin horretan jo ta ke dihardute Eri-zaintza eta Euskal Filologiako ikasketekin konpajinatuz Santutxuko bertso-eskolan.

Kristina, Ainhoa, Mirari, Xiomara eta Iratxek itzalean geratzen diren beste emakume bertsolari batzuen ordezkari bezala, askotan egin den galdera baten inguruan hitzein zuten: Zergaitik dago horren emakume gutxi bertsolaritzan?

Oso zaila da galdera horri erantzun bat ematen. Baina horri erantzuteko balio duten zenbait ideia azaldu ziren gure hizketaldian. Lehenengo momentuan, badirudi, ez litzatekeela oztoporik egon behar gaur egun emakumeak bertsolaritzan gizonen besteko izateko. Izan ere bi sexuek duten heziketa maila berdina bait da. Beraz, zein da arazoa? Desberdintasun biologiko batetan topa genezake oztopo posible bat. Emakumezkoak 13-15 urtekin somatzen dute







umetik heldutasunerako aldaketa eta egiten dutenaz lotsatzen hasten dira. Gizonezkoak, berriz, aldaketa hori 18-20 urtekin jasaten dute, ordurako bidearen zati handi bat egina dutelarik. Urte hoiak izaten dira emakume bertsolari batentzako momentu kritikoenak eta bertso-eskoletan urte horietako neskak izan ohi dira bertsolaritza uzten dutenak.

Baina une kritiko hori gainditzen duten emakumezkoak ere ez dute bide erraza izango. Hizkuntza eta abotsaren mugak gainditu beharko dituzte.

Emakumezkoak ez dira atraktibo bertsotan. Alde batetik hizkuntzaren mugarekin topo egiten dute. Jendeari gizonen ahotan astake-

riak eta berba lizunak entzutea ez zaio txarto iruditzen eta batek horrelakoak esatean barre algaraka hasten da. Baina emakumezko batek terminologia berdina erabiltzea txarto ikusia dago. Eta hori ez da bertsolaritzan gertatzen den arazoa, gizar-tean baizik. Hortaz gain, emakumezko gehienek abotsa fina dute eta ez da jendearen gustoko izaten. «Ondo egin duzu, baina abots hori...» entzun behar izan dute emakume bertsolari gehienek.


Emakume bertsolariak bi-dean aurkitzen duen beste oztopo bat gaiak dira. Normalean emakumeari beti emakumezkoen papera egitea tokatzen zaio. Honela bertso saioaren batean ama, emaztea, neskalaguna,... paperak ia beti bertso saioko emakume bertsolariarentza-ko gordetzen dira.

Arazo guzti hauei lotuta dago emakume bertsolariek izan ohi duten plazen eskasia. Askotan emakume bat bertso saioetara kuriositate bezala eramaten da. Emaku-

mezekoekin bakarrik egindako saioak aldiz egun jakineta, Martxoak 8an adibidez, izaten dira. Emakume bertsolariek ez dute eskatzen emakumezko bertso saio gehiago egon daitezzen, egongo badira ongi-etorriak. Beren errebeindikazioa emakume bertsolariari gizonetakoari eskaintzen zaizkion aukera berdinak eskaintzea nahi izango du. Emakumez soilik egindako saioak jendearengan aspergarri direnaren inpresioa sortarazten dute, hori demostratzen du behintzat behin Iratxe Ibarra eta beste bertsolari batzuei gertatutakoak:

Eszenariora igo aurretik hitzegiten zeudela emakume bat hurbildu eta «Zer dago hemen?» galdetu zien. «Bertsolariak» erantzun eta emakumeak «Nortzu?» galdetu zien. Bes-





teek «Gu» erantzun ondoren, emakumearen komentarioa «Nik onak egin behar zutela uste nuen» izan zen.

Bi ordu luzez hitzeginda, ideia, zalantza, iritzi asko adierazi ziren gure hizketaldian. Emakume ginen aldetik emakume bertsolarien egoera aztertu genuen. Baina gure hizketaldia ez genuen horretara mugatu. Bertsolaritza orokorrean harturik ere izan genuen aztergai.

Bertsolaritza elitista da. Hau da, eliteko bertsolariak hartzen ditu aintzakotzat, motelago dabilzan bertsolariak baztertuz. Baztertuta geratzen diren bertsolariak gero eta plaza gutxiago dituzte eta ondorioz, entrenamendu gutxiago ere bai, bertsotarako errezatasuna ahulduz. Eliteko bertsolariak aldiz,

zenbat eta plaza gehiago hainbat eta errezatasun handiagoa.

Dena da kate bat eta kate horren abiada puntuan txapelketak eta komunikabideetako saioak aurkitzen dira. Ez dira hauek gaitz guztien errudun baina beren eragina somatzen da. Komunikabideak bitarteko bertsolaritza jarraitzen duenak eta gero bertso saioetara doan entzulea gero eta exigenteagoa da, komunikabideetan ematen diren bertsoak aukeratuak izaten bait dira. Horrela saio on bat izandakoa normala bezala kalifikatzen da.

Honen aurrean plaza gutxi egiten dituzten bertsolariei gehiago kostatzen zaie berriro plazara itzultzea. Publikoak errespetu bat merezi du eta ondo irten ezean bertsolaria bera ere ez da bere buruarekin gustora. Ber-

tsoak ez zaizkio nahi bezala ateratzen, kantatu behar duen bakoitzean txarto pasatzen du, azkenean bertsoei beldurra hartzeraino.

Hori da, gutxi gora behera, Kristina, Ainhoa, Xiomara eta Mirariri gertatzen zaiena. Iratxeren kasua alderantzizkoa da. Euskal Herriko bertsolati gazteen txapeldunordea denetik plazak ugaritu egin zaizkio. Arazo honen inguruan, bost emakume bertsolarietan lau gazteek Ainhoak, Xiomara, Mirari eta Iratxek positibotzat jo zituzten kanpantxukada eta ihaz Bizkaiko Bertsolari Elkartek antolatutako txapelketak. Hauek 18-25 urte bitartean zeuden eta plazetan gutxi ibiltzen ziren gazteei zuzenduta zeuden. Kanpantxukada eta txapelketa hoietan lagun handiak egiteaz gain, entrenamendurako aitzaki ona zirela aipatzen dute.

Beraz, gaur egun, Bizkaiko emakume bertsolaritza Iratxe Ibarren eskuetan dago. Hala

ere, Kristina, Ainhoa, Xiomara eta Mirari ez daude orainarte egindoko guztia bertan behera uzteko prest. Era apalago batetan bada ere, aurrera jarraitzeko asmoa daukate eta beren egoera berdinean dauden emakume bertsolari guztiei berdina egin dezaten gomendatzen die.

Bost emakume bertsolari hauekin oraindik gehiago hitzegiteko bazegoen, bertsolaritzak oraindik zer aztertua baitu. Baina berandutu egin zitzaigun eta oraindik elkarrekin beste zerbait egiteko geneukan. Leioan egonik ezin genuen laneko arazoak medio Leioako Zientzia Fakultatean itxialdian zegoen bertsozale eta lagun genuen Jose Ramon Etxebarria ahaztu eta bisita bat egin genion. Orain bere arazoa eta emakume bertsolarien arazoak lehenbailehen konpon daitezen baino ez dugu itxaron behar.

Egunetik egunera, Arabaren eskutik aurrera goaz

Caja Vital  Vital Kutxa

La Caja de Vitoria y Álava